



Euskal liburuaren sektorea ere ataka larrian

(Euskal Idazleen Elkartea, Galtzagorri, EIZIE, Euskal Editoreen Elkartea eta Editargi)

Koronabirusaren krisiak inoiz baino hobeki nabarmendu du kulturak gure egunerokoan duen garrantzia. Kulturak egin dezakeen ekarpenik gabe, homogeneizaziora goaz eta larrutik ordainduko dugu.

Kultura funtsezko elementua da gure identitatean eta gure nortasunean, hizkuntza ere ezinbesteko elementu den bezala. Kulturak definitzen eta ezaugarritzen gaitu, eta transbertsala da, maila guztiak aldenik alde zeharkatzen dituena, adin guztietan ez ezik, jardun guztietan ere islatzen delako (produktiboa barne). Hau horrela izanik, gizartea mugitzen duen motorren erdigunean beharko luke. Tamalez, kulturaren espresio gehienak bigarren mailako jardun gutxitu, menpeko eta ez-beharrezko gisa jotzen dira, ekonomia produktibo hutsaren logikatik.

Normaltasun berria omen den honen aurrean, manufaktura-industriara, azpiegitura erraldietara, automoziora eta turismora bideratuko dira guztion baliabideak, ezaugarritzen gaituena, gure sor-markarik garrantzitsuena, gainerako jardunen soberakinetatik eta apurretatik irautera kondenatuta.

Inguratzen gaituzten kultura hegemonikoekin elkarbizitzan aritu nahi badugu, ez da nahikoa nola hala eustearekin, baliabide eta inbertsio gehiago behar ditu gure kulturak. Asimilazio prozesu batean ez erortzeko modu bakarra gurea balioestea, sustatzea eta funtzional bihurtzea da, eta halaxe jakinarazi nahi diegu euskal gizartearen kudeaketa administratiboan erantzukizuna duten alderdi, politikari, hautetsi eta erakundeei.

Kulturaren baitako sektoreak, eta bereziki liburugintza sektorea, ezinean dabilta, 2008koaz geroztik atzeraldiak eta krisiak metatzen joan direlako, ez ordea, sektoreari bideratutako diru-laguntzak, hauek orotara txikitu egin dira. Azken krisi honek eragindako kalteak are dramatikoagoak dira, aipatzen ari garen kultura eta nabarmentzen ari garen liburugintza euskaraz sortuak baldin badira, berez ezin larriagoa den egoerari gehitu zaizkiolako. Alegia, euskal hizkuntzak, kulturak, beste hizkuntza hegemoniko ahalguztidun batekin/batzuekin bizi eta iraun behar du, batere konparagarriak ez diren baldintzetan, zenbakitan eta irisgarritasunean.

Sektore honek, biziko bada, aitortza, inbertsioak, sustapen kanpainak, konpentsazio-neurriak eta aldaketa estrukturalak behar ditu; hitz batez, instituzioekin akordio iraunkorrak. Besteak beste, honokoak:



Sektorea berpizteko neurri pizgarriak

Sortzaileentzat (idazle, itzultzaile, ilustratzaile, kontalari...)

- Sortzaileei krisiak eragin dien %100 ordaintzea.
- Sortzaileentzako beka gehiago ematea.
- Sortzaileei estatus berezi bat aitortzea, liburuen inguruko edozein jardun (izan irakurle kluba, eskoletako saioa, hitzaldia edo dena delakoa) odisea burokratiko eta gogaikarria bihur ez dadin.
- Sortzaileei abantaila fiskalak eta bestelakoak ematea, beren jarduna herri baten identitatean eta garapenean ezinbestekoa izanagatik ere, defizitarioa delako ekonomia molde honetan.
- Hezkuntzak eta Kulturak orain arte eraman dituen programa literarioak ez etetea. Liburuak ardatz hartuta, idazleak eta sortzaileak eskoletara eramaten jarraitzea, eta ezinezko diren kasuetarako baliabide alternatiboak bilatzea (telematikoak eta abar).
- Liburutegi, mediateka, kultur etxe eta elkarten ekimenez antolatzen diren jardun literario, irakurle klub eta tailerrak eten ez daitezen eta besterik ez bada telematikoki egin daitezen, diruz laguntzea eta sustatzea.
- Jarduna ez eteteko baliabideak eskura jartzea eta diru-laguntzak ematea. Atzean gelditu edo egin ezingo direnen kasuan, sortzaileari nahiz antolaketa lanetan aritu denari konpentsazio bat ematea.

Liburuaren katea osatzen duten enpresa eta autonomoentzat (argitaletxeak, liburu-dendak, banatzaileak)

- Kreditu-lerroak irekitzea, instituzioek abalatuta.
- Liburua “lehenasunezko” produktu bezala legez onartzea.
- Liburuari zergak murriztea.
- % 25eko igoera literatura-argitalpenetarako laguntzetan.
- Hezkuntza-liburuak sortzeko laguntzen funtsak handitzea.
- Liburu-bono kanpainak bultzatzea urteko sasoi desberdinetan eta proiektu berrietan, udaberrian, udazkenean eta eguberrietan, liburu-denden jarduna piztu dadin.
- Liburutegi publikoetarako (fisikoak nahiz birtualak) paperezko liburuen eta liburu digitalen erosketak arintzea eta kopuruz handitzea, erosketa horiek inguruko liburu-dendetan egitea.
- Eskola-liburutegietarako erosketa-plan bat bultzatzea, erosketa horiek ikastetxeen inguruko liburu-dendetan egin daitezen.
- Laguntza publikoak justifikatzeko luzamendua. Justifikazioa gastatutakoaren araberakoa izatea.



- Familiak behar dituzten liburuak erosteko laguntza, “liburu-txeke” baten bitartez laguntzea eta inguruko liburu-denden bitartez.
- Familiei zergak arintzea, testuliburuak erosteagatik.
- Irakurketa bultzatzeko eta sektoreari prestigioa emateko sustapen, promozio eta publizitate-kanpainak egitea.

Donostian, 2020ko uztailaren 16an